

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko 400 bat ikaslek hartu dute parte ingurumenari eta Nafarroako gune natural eta bereziei buruzko sentsibilizazio-lehiaketetan

Elizalde eta Solana kontseilariak Mikrobideoen III. Lehiaketako eta Nafarroa Ezagutu Sarearen I. Lehiaketako sariak banatu dituzte

Asteazkena, 2019.eko otsailak 27

Nafarroako ikastetxe ezberdinetako Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko 374 ikaslek hartu dute parte Foru Komunitateko Ezagutu Sarearen I. Lehiaketan eta Mikrobideoen III. Lehiaketan. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilari Isabel Elizalde Arretxeak eta Hezkuntzako kontseilari Maria Solana Aranak sariak banatu dizkiete gaur lan irabazleei.



Elizalde kontseilaria lehiaketetan sarituei zuzendu zaie.

Nafarroako Jauregiko Tronuen Aretoan egin den ekitaldian, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilariak nabarmendu nahi izan du era horretako sariak duten garrantzia, Nafarroako gizartea eta bereziki hezkuntza-etapa ezberdinetako ikasleak gure komunitatean eragina duten ingurumen-gaien inguruan sentsibilizatzeko formula gisa. Halaber, adierazi du “gure baliabide naturalak eta landa-ingurunea gehiago ezagutzeko tresna direla, modu horretan, kulturalki iraunkorra den Nafarroa eraikitzen aurrera egiteko”. Ildo horretan, kontseilariak aipatu du “talde lehiakideek sormena dutela haien kezka adierazteko edo Nafarroako gune naturalak aurkezteko orduan, eta irakasleen laguntza ere jaso dutela prozesu horretan”. Era horretan, eskerrak eman dizkie hainbesteko egunerokotasuneko gaietan duten ikuspegiarengatik; hala nola, erabilera bakarreko plastikoak murriztea edo Bardeak, Pitillasko Aintzira, Erriberri edo San Donato ingurunea bezalako gune hain berezien inguruan duten begirada, “Nafarroako belaunaldiak bizitutako paisaiak dira, eta aukera-gune bilakatu behar dira landa-mundu bizia lortzearren”.

Bestalde, Hezkuntza kontseilaria den María Solanak ondorengo adierazi du: “kontserbatzeko ezagutzea gure ikastetxeetan lan egiteko filosofia oso ona da, eta hezkuntzako etapa guztietara egokitu daiteke”; “eta hori egiteko zer hobeto lurralde-garapen iraunkorraren estrategiekin

bat egitea baino, gure landa-ingurunea eta gure espazio naturalak, beren jende eta bizitzeko modu eta guzti, ezagutzea, zaintzea eta horiekin lotzea besterik ez da-eta”.

Solanak eman dio amaiera gaurko ekitaldiari, eta sarituei nahiz parte-hartzaileei eskatu die EZAGUTU SAREKO espazio naturalak bisita ditzatela haien familiekin. “Transmititu ingurumena errespetatzeak duen garrantzia, gure baliabide naturalak zuzen erabilia. Hori guztia gelan ikastea zoragarria da, baina hori hedatzen ikastea are hobea, horrela katea ez baita apurtzen”.

Bloga, ibilaldia eta erredakzio digitala

Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei zuzenduriko Nafarroa Ezagutu Sarearen I. Lehiaketaren helburua izan da [Sarea](#) osatzen duten 44 espazio

natural eta berezi ezagutzera ematea eta lurralde-garapen iraunkorrean inplikatzeko. Nafarroako ikastetxe ezberdinetako 250 ikaslek hartu dute parte lehiaketan, eta hiru kategoriatan landu dira. Blogaren modalitatean, ikasleek haien zonaren alderdi onak azaldu behar izan dituzte, eta saria [‘Bardena Dothraki’](#) proiektuarentzat izan da; hain zuzen ere, Tuterako Valle del Ebro BHIko 1. Batxilergoko 18 ikasleek egin dute Geografia eta Historiako Pedro Ijalba irakaslearen laguntzarekin. 70 orrialdetik gorako blogean, Errege Bardeako balio naturalen eta paisajistikoen inguruko artikuluak garatu dituzte; baita fauna eta florari buruzkoak nahiz pelikula edo serie ezagunen eszenatoki izan diren monumentu naturalen gainekoak ere, tartean ‘Juego de Tronos’.

Haur Gidarien kategorian, ibilaldi bat proposatu behar zen espazio natural baten balio naturalak erakutsiaz, eta Pitillasko Aintzirako Erreserba Naturala bisitatzeko proposamena izan da irabazlea, Erriberriko Vianako Printzea Ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek egina, Lourdes Garcia irakaslearekin batera.

Horrez gain, Erredakzio Digitalaren modalitatean, Etxarri Aranazko San Donato Ikastetxe Publikoko Lehen Hezkuntzako 4. mailako 18 ikaslerentzat izan da saria, Oihana Urdangarin irakasleak gidatuta egin duten ‘Beheko Basoa’ proiektuarengatik. Lan horretan, herritik gertu dagoen basoan zehar ibilaldia egitea proposatu dute eta San Donatoko ermitaraino igotzea; ibilbidea erromatar galtzadak zeharkatzen du. Saritutako lan guztiak Nafarroa Ezagutu Sarearen orrialdean ikus daitezke: www.exploranavarra.es.

Mikrobideoen lehiaketa

Mikrobideoen III. Lehiaketan, ingurumenaren mundu-mailako goiburuarekin bat eginez, ikasleek mikrobideoak egin behar izan dituzte honako gaiaren inguruan: “Zer egin dezaket nik nire eskolan erabilera bakarreko plastikoak erabili ez ditzagun?”. Guztira 124 ikaslek hartu dute parte, eta 45 mikrobideo sortu dituzte. Lehiaketan, irabazlea [‘PlastiKK’](#) mikrobideoa izan da, Zizur BHIko Aimar Errea, Aiora López eta Nahia Pérez ikasleena; bigarren saria, berriz, Alejandra Alonso, Silvia Azanza eta Ángela Carlota ikasleek jaso dute, San Cernin ikastetxeok, [‘ReciclaJe’](#) lanaren truke.

Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako lehiaketa honetan, ohitura jakin batzuk aldatzeko mezuak jasotzen dituzten bideoak egin dituzte ikasleek; hala nola, hamaiketakoaren bilgarriak, erabilera bakarreko plastikozko botilen erabilera, e.a., murrizteko, berrerabiltzeko, birziklatzeko eta berreskuratzeko aukerak aztertuz.



Lehiaketetan sarituak izan diren partaide guztiak.